

ortzadar

larunbata, 2017ko maiatzaren 6a. 498. zenbakia

deia.com/ortzadar


euskal kulturaren kolore guztiak



'HOZKAILUA'

Belaunaldi baten bizipen eta desengai-nuak azaleratu ditu Huts Teatroak bere antzezlan berrian

-- 4-5. orrialdeak --





h aritu da zuzendari lanetan. Irudian, aktore protagonistak. AINHOA RESANO

beste guztiarekiko perspektiba bat izatea ahalbidetzen die.

OINARRIZKO UMOREA “Esan ohi da gizakiok hiru bizitza ditugula. Maite eta Karlosek lehen bi bizitzak bukatu dituzte eta haien laguna ehorztera doaz. Modu berean, haien burua ehorztera ere bai. Fase horretan kokatzen da antzezlanak”, dio Ximun Fuchsek. 40-50 urte arteko esperientzia duten bikote baten “amildegi aurreko momentu hori” erakusten du obrak, zuzendariaren esanetan. “Eta orain zer?, galdetzen diote euren buruari”. Umorea beltzez josita dagoen arren, umorearen “kolore guztiak” dituela nabarmendu nahi izan du Fuchsek. “Umora gordina eta krudela azaltzen da, baina baita ere oinarrizko umorea. Hein batean, publikoarentzat komikoa izan daiteke. Zentzu horretan, bizia eta dinamikoa da antzezlanak”.

Road movie baten gisakoa da *Hozkailua*, eta formatu hori agerian uzten saiatu da Huts Teatroa. “Eszenografiak eta taularatze moduak erreferentzia egiten die film jakin batzuei”, dio

Fuchsek. Ahotan izan ditu Wim Wenders-en *Paris Texas* (1984) eta Tommy Lee Jones zinemagilearen *Los tres entierros de Melquiades Estrada* (2005) filmak. Far West edo Mendebalde Urrunean giroturiko filmetan jarri dute arreta, eta Euskal Herrira ekarri dute giroa. “Euskal Herri osoa zeharkatzen dute pertsonaiek hozkailuarekin, Nafarroako Bardeetara ere joaten dira, adibidez. Film amerikar horien giroa harrapatzen saiatu gara, giro hori gurera ekartzen”, kontatu du zuzendariak. Amaia Garateren dekoratuak aspaldiko ziklorama zaharrak ekartzen ditu gogora.

FORMATU TXIKIEN ALDE Aulestiko antzerki topaketetan estreinatutako obra da *Hozkailua*, eta harrera “berezia eta beroa” izan dutela azaldu dute Lipus eta Urrutiak. Ikusleak

“hunkituta” atera zirela diote: “Azken urteetan Aulesti euskal antzerkiaren erreferente bihurtzen ari da eta testuinguru horretan aurkeztea oso polita izan da”, azaldu du Urrutiak. Ofizioaz hausnartzea, antzerkizaleengana gerturatzea eta konpainien arteko harremanak sendotzea ditu helburu topaketak. “Herri txikia da Aulesti, 400 bat biztanle ditu, eta batbatean euskal antzerkiaren bilgune da; ikaragarria da”, gehitu du aktoreak.

Aulesti ez da izango, baina, *Hozkailua* antzezlanak bisitatuko duen herri txiki bakarra. Formatu txikiko obra izanik, antzokirik eta aurrekontu handirik ez duten herri eta leku askotara iristea da helburua. Asmo horrekin sortu dute, hain zuzen ere, *Hozkailua*. Huts Teatroak sortu eta Artedramak ekoiztutako hirugarren lana da. Aurretik Xabier Mendigurenen *Publikoari*

“Obra honek aukera emango digu beste antzezlan askorekin aritu ezin izan dugun herri eta aretoetan aritzeko”, uste du Lipusek

‘Hozkailua’ Hurrengo emanaldiak

Herri herri ibiliko dira Ander Lipus eta Patricia Urrutia hozkailua garraiatzen. Gogotsu daude, gainera, hamaika herri eta hiri bisitatzeko. Antzezlanak Aulestiko antzerki topaketetan aurkeztu ostean, maiatzaren 26an Laudion egongo dira, 27an Zarautzen (Literaturia jaialdiaren barnean) eta 28an Markina-Xemeinen. Ekainean, Deban, Bilbon, Zumaiian, Bolibarren eta Oñatin izango da aukera ‘Hozkailua’ antzezlanak ikusteko, eta uztaileko dagoeneko emanaldi bat baino gehiago lotuta dituzte Donostian. “Emanaldi dezente izatea eta obra antzoki sareetatik aparte erakustea da gure helburua”, jakinarazi du Ander Lipusek.

Gorrito eta Jon Gerediagaren *Etxekoak* egin dituzte. Lipusen lan pertsonalenak plazaratzeko erabiltzen dute Huts Teatroaren zigilua, eta Artedrama konpainiarekin batera aspaldi zerbait formatu txikiko zerbait egiteko asmoa buruan. “Buelta eman nahi genion antzerkiari eta formatu txikiko zerbait egin, antzokietatik aparte beste sare batzuetara iristeko”, azaldu du Lipusek. Eszenografia eramanigarria da, eta bi aktore baino ez daude oholatzen. “Hortaz, aukera ematen du beste era batera ezinezkoa izango litzatekeen herrietan antzezteko”, gaineratu du. Helburu horrekin jaio da antzezlan berria eta bi edo hiru urtez Euskal Herriko herri askotara hurbildu eta emanaldi “bereziagoak” eskaini nahi dituzte sortzaileek. Adibidez, ekainean, Bolibar herri txikian izango dira.

SOINU BANDA Iturriaga, Lipus, Fuchs eta Urrutiarekin batera, talde handi bat aritu da antzezlanean. Amaia Garateren eszenografia du emanaldiak, Battitt Halsouetek egin du Jimmyren panpina, Josep Dahuk argi diseinua, Xabino Alkortak teknika eta Asier Iturietek musika. Musika, hain zuzen ere, garrantzi handia du obran. Hala, giroaren ardatz izango dira garai bateko abesti erradikalak. Alde batetik, Iturietek sortu du obraren soinua, eta bestalde, garaiko abesti erreferenteak entzungo dira antzezlanean. Gitarra esku artean eta armonika ahoan, Karlos eta Maitetek The Clash, Hertzainak, Baldin Bada eta Eskorbuto taldeen abestiak interpretatuko dituzte. “Bizitza baten soinua banda dira aukeratu ditugunak, pertsonaiek harreman berezia dute abesti horiekin”, dio Urrutiak.

Aspaldi ezagutzen dute elkar obran parte hartu duten gehienek. Elkarlanean sortu dituzte beste hainbat antzerki-lan eta nabaria da haien konplizitate taula gainean. “Hainbeste urtean elkarrekin lan egin ondoren, uste dut antzerkia kontartzeko hizkuntza berezi bat ere garatu dugula elkarrekin, eta publikoak ere horrela jarraitzen gaituela uste dut”, dio Fuchsek. Huts Teatroa, Artedrama eta Le Petit Théâtre de Pain-en elkarlanaren ondorioz, urte hauetan guztietan “identitate bat eta zigilu artistiko bat” sortu dutela uste du zuzendariak. “Antzezlan batetik bestera aldatzen saiatzen gara, baina dagoeneko gure ikuspuntua ezaguna da, gure estiloa da”.